

Heriotza bikoitza

// DOBLE MALTA //

DOSSIER ARTISTIKOA

1/ SINOPSISIA

Espazio itxi batean bi aktore errealitatearen eta fikzioaren arteko mugan kokatzen dira. Behin betiko elkarrekin egongo direla elkarri zin egiten diote. Bietako bat bidaia ikaragarri batetik itzuliko da. Heriotzatik, hain zuzen ere.

Lehen pertsonan hitz egingo digute, baita bigarren pertsonan ere.

Bizipen horrek kolokan jarriko du beraien bizitzari eta heriotzarekiko ikuspuntua. Bi kontzeptuak nahastu egingo dira iragana-oraina-etorkizuna nahasten diren bezala.

Heriotza bizitzaren ondoren irekitzen den ate bat besterik ez da.

2/ EZAUGARRI NAGUSIAK

Muntaiaren ezaugarri nagusiak hurrengoak izango dira: Pieza eraikitzeko *Libro Tibetano de la vida y de la Muerte* hartuko dugu dramaturgiaren oinarri gisa. Beste ardatz nagusia bideo lana izango da.

Lan eszenikoa eta ikus entzunezkoa uztartuko ditugu, beraz. Irudiekin esperimentatuko dugu eszenatokian gertatzen dena sortzen laguntzeko. Horretarako, besteak beste, heriotzatik gertu eta heriotza klinikoa bizi dituztenen testigantzak grabatuko ditugu, horiek piezaren mamia elikatuko baitute. Aktoreen inprobisazio lana izango da beste tresna garrantzitsua. Hori guztia egin ahal izateko, Gipuzkoan egoitza duen Mandalara taldearekin elkarlanean ariko gara.

3/ ZERGATIK HERIOTZA

Mendebaldean heriotzari bizkarra ematen bizi gara, jakin gabe zein misterio gordetzen dituen bere baitan. Gure bizitzan zehar ez gara prestatzen momentu horri aurre egiteko, beldurra eta ikara dira nagusi. Heriotzak tabua izaten jarraitzen du. Betirako biziko bagina bezala paseatzen gara, gaztetasunak eta edertasunak mugarik ez dutela pentsatzen dugu. Behin behineko amaiera edo transformazio bat besterik ez da heriotza fisikoa? Berragariztatzea? Behin bakarrik bizi al gara edo aurretik beste bizitza mota batetik igarogara?

Galdera horiek guztiak sakonki planteatu nahi ditugu muntaia honekin, meta eta fisikoa da gure existentzia, eta beraz, aukerak zabalik uzteko arrazoiak ditugu.

4/ ESTILOA

Lan eszenikoan, teatroa eta performancea erabiliz eta ikus entzunezkoa ardatz nagusia izanik, muntaiak pisu dokumentalistiko garrantzitsua izatea nahi dugu. Heriotzaren inguruan esperientziak izan dituztenen testigantzekin lan egingo dugu, horiek proiektatu eta zuzenean entzuteko aukera izango dugularik. Era berean, aktoreen bizipen pertsonalak erabiliko ditugu, eta inprobisazio eta jokoaren bidez heriotza eta bizitza lotzen dituzten zubi horien kontzeptuak komunikatu nahi ditugu.

5/ LAN ITURRIAK

Iturri desberdinak dira muntaiaren inspirazio:

Zine mundutik: ENTER THE VOID Gaspar Noeren unibertsoa; MAS ALLA DE LOS SUEÑOS Vincent Ward-ek zuzendua; LIFE OF PI Ang Lee-k zuzendua.

Libro Tibetano de la Vida y de la Muerte-z (Sogyal Rimpoche) gain, ELISABETH KUBLER ROSS doktorearen bibliografía oso lagungarria izan zaigu gaia arakatzeko.

MILO RAU-en teatro dokumentala edota COLECTIF MXM unibertsoa eta estetika oso baliogarrak dira gure unibertso propioa sortzeko.

6/ TALDE ARTISTIKOA

JON ANDER ALONSO

Donostia (1982).

Donostiako AET-n (Arte eszenikoen tailerra) eta Ginebrako École de théâtre Serge Martin-en egin ditu bere ikasketak. Urteak dira bere ibilbide profesionala Euskal Herria, Frantzia eta Suitza artean kokatzen dela. Suizan burutu du bere azken antzezlanana AMORES DE CANTINA (Théâtre Spirale) deituriko pieza. Zine munduan EH-ko azken ekoizpen handietan parte hartu du: AUNDIYA (Aitor Arregui, Jon Garaño) edota ERREMENTARI (Paul Urkijo) filmetan, esaterako. Sor-kuntza kolektiboa eta teatro fisikoa dira bere lan egiteko era gustukoena.

ENEKO SAGARDOY

Durango (1994).

Herri antzerkian egin zituen lehen urratsak bere jaioterrian. Santanderreko Espacio Espiral labo-
rategian egin zituen antzerki fisikoko ikasketak
eta ikastaro ugaritan parte hartzen jarraitzen
du, sorkuntza kolektiboa eta lengoia berritzai-
leak hizpide. Goenkale (ETB1) izan zen bere le-
hen lana, telebistan.

Zinemako lan ezagunenak Sanctuaire (Olivier
MassetDepasse, 2014) eta The Night Watchman
(M.A. Jimenez) dira; 2017an hiru film estreina-
tuko ditu: Aundiya (Aitor Arregi, Jon Garaño),
Errementari (Paul Urkijo) eta La higuera de los
bastardos (Ana Murugarren). Antzerkian hiru
obra ditu kartelean: Treblinkara azken trena (Mi-
reia Gabilondo, 2016), Zergatik, Jamil? (Patxo Te-
lleria, Jokin Oregi) eta Amodioaren ziega (Ander
Lipus, 2014).

MIREN GAZTAÑAGA

Irun (1979).

Aktore eta sortzailea. Arte ederretan lizentziatua, 1999. urtean hasi zuen aktore ibilbidea. Hainbat konpainiekin egin du lan, horien artean, Antzerkiola Imaginarioa ("8 Olivetti poetikoak", "Mundopolski: erreboltaren ziaboga", "Yuri Sam. Otoitza", etab.), Tanttaka ("Komunikazioa- Inkomunikazioa", "Uda gau bateko ametsa"), Hika ("Ilargiaren bi aldeak"), Arte drama, Le Petit Theatre de Pain eta Dejabú ("Errautsak"), Moaré danza ("Gau Bakar bat") eta Trashumantes

("Crónica de la noche abierta"), besteak beste. Telebistan ere ikusi ahal izan dugu, adibidez, "Martina" programan eta "Aitaren Etxea" teleailean. Zineman, "Igelak" eta "El Guardián Invisible" dira, orain arte, bere lan esanguratsuenak. Sorkuntza pertsonalaren esparruan ere hainbat lan sortu ditu; aipagarrienak "Diálogo" (Gabriel Ocina aktorearekin batera), "Euli-Giro" (bera parte den Kamikaz Kolektiboarekin sortutakoa) eta liburu hontan aipatuko dugun "Stereo" performancea, bere lan kuttunetako bat.

MIKEL ZUMETA

Hondarribia (1980).

Soziologian lizentziatua Leioan (EHU/UPV). Entsegu eta diskurtso teorikoen zale eta idazle bezala eskarmentu luzea dauka. Batez ere poesia lantzen du, baina prosa eta ipuin laburrak ere idatzi izan ditu. Zinema eta dokumental kritika eta laburmetrai eta telesailetarako gidoiak ere landu ditu. Argazkigintzan ibilbide luzea dauka, erakusketa pare bat egin ditu, bakarka eta taldean. Bideo sormen arloan interesatua eta esperientzia desberdinak izan ditu, laburmetrai eta bideo sormen esperimentalak sortuz. Performance desberdinetan parte hartu izan du, beti ikus-entzunezko edukiak uztartuz. Musikazale amorratua da, eta musikari xumea, musika talde pare batetan parte hartu izan du.

PAULA OLAZ

Iruñea (1989).

Berklee College of Music-en formakuntza musikala jaso zuen. Aurten Master in Scoring for Film, TV and Videogames ari da ikasten Berklee-n eta hango Technology Laborategian lan egiten du. Musika Iruñean, Gasteizen, eta Karlsruheheko kontserbatorioetan ikasi zuen eta Euskal Herriko hainbat konpositorekin elkar lanean aritu da. Budapest-eko orkestra zuzendu du eta beste hainbat orkestekin jarraitzen du lanean. Bere musika telebistan, zineman, antzerkian edota bideojokoetan entzun daiteke.

ANE URTIZBEREA

Donostia (1983).

Arte Ederretan lizentziatua eta jantzigintzan eta josketagintzan goi teknikaria. Anuska Petruska izenpean bere diseinu propioak egin eta josi izan ditu 7 urtetan zehar. Antzerkian, jantzigintzan lan egin du (Opera Gazte, Vassa, Nasdarovia Chejov, eh! Petrel) baita bideoklip-etan ere (Enkore, Belako).

ZAZPITERDI IKUS-ENTZUNEZKO

Donostia.

Zazpi T'erdia Donostian hasi zen martxan 2007 urtean, dokumentalak, fikzio piezak eta bideo-sormeneko lanak eginez. Dokumentala eta arte sozialean elkar lan egin ondoren, Pello Gutiérrez, David Aguilar eta Juan Miguel Gutiérrezek proiektuari forma emateari ekin zioten.

Dokumentala inguruko errealitatearekin harremanetan jartzeko modua da guretzat.

Azken urtetan, ez-fikzioaren sailan garrantzia izaten hasi den ekoiztetxea da, eta nazioarteko hainbat zinemalditan ibiliak dira. Hala nola, Kolonbiako Nazioarteko Dokumentalen Mostra, Buenos Aireseko FCIP eta DerHumAlc, Iruñako Punto de Vista zinemaldia, Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia, Zinebi, Alcine, Alcances, etab.

Bestetik, sorkuntza eszenikoan ere lana egin dute. BIUTZ (Rouge Elea konpainiarekin batera) eta DUO (Anakrusarekin batera) obren sortzaile izan dira. Bertan zuzeneko bideo proiektzioak arte eszenikoekin uztartzen dira.

ALVARO LEDESMA

Donostia (1975).

Artista pluridisziplinarra, eskulturan, pinturan, eskenografian, literaturan, bideo instalakuntzan eta argazkilaritzan aritutakoa. Bere sorkuntza lana oinarri plastiko batetik abiatuta, proiektu anitzetan parte hartu du, musikari bezala antzerki muntaietan, poesia emanaldietan edota bideo-arte kontzertuetan.

ARANTZA FLORES

Urdiain (1981).

Bartzelonako Institut del Teatren, Arte Eszenikoetan goi mailako teknikari titulatua da, argiztapeneko espezializazioan. Gasteizko Mendizabalan Ikusentzunezko goi mailako ikasketak ere baditu. Eta Juan Ruesga edota Jose Javier Larreina eszenografoekin espazio eszenikoen inguruko kurtsoetan parte hartu du. 2004 eta 2015 urteen bitartean Katalunian, teknikari lanegain, argiztapenak egin ditu Nada Que Verdantza konpainiarentzat, Las Mateixas antzerki konpainiarentzat, Proyecto Vaca emakume sortzaileen elkartearentzat, Delirio ekoizleentzat, edota Gloria Rognionik zuzenduriko Femarec antzerki sozialarentzat. Euskal Herrian eginiko lanetan berriz, argiztapenak egin ditu honako hauetan; Cotillas (Gorka Aguinagalde eta Iñigo Salinero), Librea Ninçana (Ortzadar Euskal dantza taldea), Boli Bili Boli, Kolorez Kolore eta Plisti Plasta (Pantzar Teatroa), La Maquina del Dueño (Plataforma Tirante), Esku Harriak (Mug Mus laborategia) edo ta Ander Lipusek zuzenduriko Amodioaren Ziega (Lauka teatroa). Teknika eta diseñua uztartzea helburu, gaur egun Arriaga Antzokiko argi teknikaria da.


7/ BEHAR TEKNIKOAK

Espazioaren aldetik irekita gaude areto multi-diziplinarretan lan egiteko. "Box" hutsak edo fisikoki eszenikoentzako aproposa den edozein aretok balio digu.

Teknikoki posible da guk gure materiala propioa erabiltzea. Beharko duguna: proiektore bat eta bi mikrofono.



VideoPromo



<https://vimeo.com/zazpiterdi/heriotza>

BANAKETA

ATX TEATROA



Naia Muñoz Murua
banaketa@atxteatroa.com
+34 644618643